

Mondragon Unibertsitateko Ekodiseinu Gela

2008/12/03

Joan zen azaroaren 26an BECen, Barakaldon, produktuen eta eraikuntzaren ingurumen berrikuntzari buruzko III. topaketa izan zen, eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak Ingurumen Sailarekin, Iloberekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2006ko urrian sinatu zuen akordioa berritzeko baliatu zuen.

Erakundeen arteko elkarlanak denbora tarte horretan, ekodiseinuan adituak diren profesionalak formatzeko balio izan du eta hauek, Euskal Herriko hainbat enpresetan proiektuak garatu dituzte. Bestalde, enpresei eta diseinu arloko profesionalari zuzendutako formakuntza eta sentsibilizazio jardunaldiak egin dira. Azkenik, produktu industrialen diseinuarekin zerikusia duten elkarlan ekimenak ere egin dira.

Diseinu gelak ikasturte honetarako honako helburuak ditu:
Unibertsitatearen hornidurak direla eta, erosketa berdearen irizpideak ezartzen lagundu eta UNE 150.301 ziurtagiria lortzen lagundu. Izan ere, estatuan 29 enpresek dute UNE 150.301 ekodiseinu ziurtagiri hau. Enpresa horietatik %50a Euskal Erkidegokoa da.

